

## **BETE BEHARREKO IRIZPIDEAK**

Erantzukizunpeko Adierazpena sinatzen baduzu, Donostian turismo jarduera gidatua egitean irizpide zerranda hau betetzeko konpromisoa hartzen duzu

### **ARAU OROKORRAK**

- Taldeek ezingo dituzte **25 kide** baino gehiago izan, taldearen gidariaz gain.
- **Ordutegia:** jarduera 08:00etatik 23:00etara bitartean soilik egin ahal izango da.
- Debekatuta dago bide publikoan edozein jarduera edo soinu emanaldi egitea, bai eta megafonia erabiltzea ere, zarata eta bibrazioek sortutako kutsadura akustikoari aurre egiteko udalaren jokabidea arautzen duen 2022ko maiatzaren 12ko Ordenantzaren arabera.
- Adierazpenarekin batera, identifikazio fitxa bat emango da, zeina ikusgai jarri beharko baita bisita guztietan. Horretan, espedientearen datuak eta baimendutako aldia agertzen dira.

### **BALDINTZAK**

- Bide publikoa okupatzea: horretarako egokiak diren toki eta guneeetan gelditzea. Saihestu igarobideak, bidegorriak, espaloi oso estuak, ostalaritzako eta/edo merkataritzako establezimenduen sarrerak, etab. Aprobetxatu parkeak, etorbideak eta abar.
- Saihestu eremu eta kale oso beteak udan eta puntako orduetan.
- Nolabaiteko distantzia gorde Udalak antolatu edo baimendutako ekitaldietatik, oztoporik ez eragiteko.
- Errespetatu beste taldeekiko 75 metroko tartea, gutxienez. Kontu horrengatik liskarren bat sortzen bada, bi alderdiak toki horretatik joango dira.
- Ez oztopatu oinezkoen zirkulazioa; horretarako, utzi gutxienez 2 metro pasealekua mugatzen duen barandatik, hormatik edo fatxadatik.
- Hiri-altzariak ezin izango dira gizalegerik gabe erabili.
- Ez egin bisitariarentzat zein gidariarentzat arriskutsua izan daitekeen ezein ekintza.
- Unean-unean indarrean dauden neurri berezi guztiak beteko dira (ordutegia, maskara...).
- Azpimarratu hiriko ondarearen eta kulturaren garrantzia. Ondo ezagutu hiriaren historia eta kultura eta, bisitetan, azpimarratu eskualdeko ondarearen eta kulturaren garrantzia, eskualde gisa ulertuta, gutxienez, Gipuzkoa eta, hedaduraz, Euskal Autonomia Erkidegoa. Horren guztiaren helburua bisitaria kokatzea, bisitaldia testuinguruan jartzea eta eskualdeko beste interesgune batzuk ezagutzera ematea da, turismoaren deslokalizazioa lortze aldera.

## **KONPROMISOA**

- Onartzen dut Udaltzaingoak eskumena duela betekizunok betearazteko eta nire jarduerak beste ekitaldi batzuekin bateragarri egiteko. Era berean, konpromisoa hartzen dut toki batetik joateko, Udaltzaingoak hala agintzen badit.
- Nire jarduketetan ikusgai izango dut adierazpen honen identifikazio orria, behean erantsitakoa.

## **GOMENDIOAK**

- Bisitarien denbora librean uztea museoetara eta beste baliabide turistiko batzuek gozatzeko. Tokiko saltoki txikietan kontsumitzeko gomendioa egitea, bakarrak eta desberdinak diren tokiko negozioen garapenean laguntzeko.
- Bisita alternatiboak egitea, hiriaren bisitaldi panoramiko bat egitea edo azalpenak beste auzo edo begiratoki batetik ematea, nagusiki bisitarien kontzentrazio handia dagoenean.
- Gidariak Euskal Autonomia Erkidegoko 2 hizkuntza ofizialak (euskara eta gaztelania) ezagutu beharko dituzte, gutxienez.
- Benetako eta kalitatezko tokiko gastronomiaren aldeko apustua egiten duten jatetxeak gomendatzea.